

Araba

GASTEIZKO ARTIUMEN

Lanabes - Araban Euskara Lanean egitasmoa aurkeztu zuten ekainaren 14an, Gasteizko Artiumen. Bertan parte hartu zuten Arabako Foru Aldundiak, SEA Arabako Enpresariak eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak, besteak beste. Egitasmo honek sarea nahi du ehundu Arabako arlo sozioekonomikoan.



EUSKARA INDARTUZ LAN MUNDUAN

● Lanabes-Araban Euskara Lanean egitasmoa jarri dute martxan Arabako zenbait erakunde, elkarte eta enpresak ● Hainbeste enpresa esfortzu handiak ari dira egiten Arabako lan munduan euskararen presentzia normalizatzeko

GASTEIZ – Gaur egun, lan munduan euskararen alde lanean ari diren zenbait erakunde, elkarte eta enpresa daude Euskal Herrian. Araban, zehazki, alor sozioekonomikoan zeresana duten enpresen eta entitateen sarea ehuntzen joan nahi dute.

Badago zer hobetarik euskararen erabilera lan munduan indartsuago izan dadin. Araban gero eta enpresa gehiago ari dira euskara euren eguneroko kudeaketan barneratzen, bezeroekiko zein hornitzaileekiko harremanetan erabiltzen, hizkun-

tza paisaian, barrura eta kanpora begira. Hor daude, esate baterako, Bai Euskarari Ziurtagiria edo Bikain agiria duten enpresak eta euskara plana dutenak.

Azken 20 urteotan Arabako gizartea izugarri eraldatu da euskarari

dagokionez. Bai hezkuntzan, bai kalean eraldatzen eta moldatzen joan diren heinean, enpresa munduan ere pausoak ematen ari dira. Gaur egun, Araban 150 enpresa inguru ari dira euskara-kontuekin lan egiten.

Aldaketak ari dira ematen eta, pixkanaka, euskara sustatzeak eta erabiltzeak ekar ditzaketen onurez ari dira jabetzen alor sozioekonomikoan, enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak.

Ildo horretan, Lanabes – Araban Euskara Lanean egitasmoaren helburu nagusia Arabako alor sozioekonomikoan euskararen pre-

sentzia txertatzea eta handitzea da. Lanabes ekimenak euskara lanera eramango du Araban. Ekimen hori bultzatzeko (*Lanabes.eus* webgunean aurki daiteke ekimenaren inguruko informazio eguneratua) oso talde zeharkakoa lortu dute. Ikuspuntu ezberdin asko partekatzeak asmoz, enpresa eta erakunde ezberdinak bildu dira.

Hauetara Lanabeseko talde eragilea osatzen dutenak: Arabako Foru Aldundia, SEA, Arabako Merkataritza eta Industria ganbara, Merkataritza Federazioa, Oreka IT, Electra Vitoria, Laneki, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak. Arabako enpre-



50.000 euroko diru partida

GASTEIZ – Arabako Foru Aldundiak 50.000 euro bideratuko ditu sektore sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko. Hala, Araban Euskara Lanean eta Lazarraga Sariak proiektuak garatzeko bideratuko da diru-partida hori. Arabako Foru Aldundiak Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearekin batera garatzen ditu bi proiektuok.

Alde batetik, 2015eko irailaren 23an egin zuten Araban Euskara Lanean izeneko world kafea, Arabako enprekin euskarak lanean duen egoeraren azterketa partekatuta eta euskaraz lanean ari diren erakundeen praktikak, premiak eta balorazioak jasotzeko. Hortik abiatuta, proposamenak jaso eta hiru urteko operako Araban Euskara Lanean egitasmoaren gutxieneko helburuak adostu dira.

Beste aldetik, Lazarraga Sarien helburu nagusia Arabako arlo sozioekonomikoan euskararen alde lan egin duten entitate edota pertsonak saritzea eta haien ahaleginekiko begirunea izatea da. Hala, Lazarraga Sarien bidez, Arabako lau entitate eta pertsona bat saritzen dira bi urtean behin, euren lan inguruan euskara txertatzeko aurrera eramandako ekimenengatik. Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak eta Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak antolatzen dute sari-keta hori. – DNA



NDUAN

sa munduan eragitea da helburu nagusia, eta horretarako talde eragilea eratu da prozesua lideratzeko. Arabako izaera desberdineko entitateak ari dira parte hartzen (administrazioa, enpresak, euskararen inguruko erakundeak, lanbide heziketarekin lotutakoak, etab.). Egoeraren azterketa partekatuta nahi dute enpresa gehiagorekin eta, hortik abiatuta, hiru urteko operako gutxieneko helburuak adostu.

Lan eta enpresaren munduan euskararen erabilera modu iraunkorrean areagotzeko zuzenean erantzuten dio gaur euskarak aurrean duen erronka nagusiari:

bi-izindarraren erronkari, hain zuzen ere. Lan eta enpresaren munduan ere arnasa behar du euskarak.

Zehazki, Arabako lan-munduan euskara sustatzeko hiru lan-ildo adostu ditu Lanabesek: Araban Euskara Lanean ekimena gidatu duen taldeari segimendua eta zabalkundea ematea, Arabako sektore sozioekonomikoa euskararen erabilera sentsibilizatzea, eta era guztietako entitateak eta pertsonak inplikatzea, Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia handitzeko.

HEZKUNTZA ETA LANA Proiektuaren inguruko aurkezpenean Igone Martínez de Luna Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak nabarmendu zuen orain arte hezkuntza eskalduntzean jarri direla indarrak, baina lan-mundua eskalduntzeari

LANABES

● **Talde eragilea.** Hauek dira Lanabeseko talde eragilea osatzen dutenak:

- Arabako Foru Aldundia.
- SEA – Arabako Enpresariak.
- Arabako Merkataritza Ganbera.
- Arabako Merkataritza Federazioa.
- Electra Vitoria.
- Oreka IT.
- Laneki.
- Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak.

Arabako enpresa munduan eragitea da helburu nagusia, eta horretarako talde eragilea eratu da prozesua lideratzeko. Arabako izaera desberdineko entitateak ari dira parte hartzen (administrazioa, enpresak, euskararen inguruko erakundeak, lanbide heziketarekin lotutakoak, etab.)

ere erreparatu behar zaiola, gizar-teak eleanitza izaten jarrai dezan: "Oso garrantzitsua da konturatzea hezkuntza eta lana ardatz garrantzitsuak izango direla Araban eleantzasunari dagokion kolorea emateko. Bien arteko harremana landu beharko da eta oraintxe da unea horri heltzeko. Harrobia badago, lanabesak behar dira, ordea, harrobia lan-mundura eramateko", esan zuen. Arabako lan mundua hizkuntza kudeaketan eredugarri izateko nahia azaldu zuen Martínez de Luna foru diputatuak. Hizkuntza kudeaketaz aritzean "batzeaz", "hizkuntzen arteko orekaz", "gizartearen bilakaerari erantzuteaz" eta "herri garapenez" ari gara nabarmendu zuen. Lan-munduan euskalduntzean eragitea da Lanabesen helburua eta hori lortzeko ezinbestekoa da enpresak eta profesionalak inpli-

katzea. Horregatik, Lanabesen talde eragilean parte hartzen du SEA - Arabako Enpresariak elkarteak.

Beste aldetik, aurkezpenean Rober Gutiérrez Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak zuzendaria nabarmendu zuen Lanabes proiektuak erakusten duela "denon inplikazioa" behar dela lan mundua eskalduntzeko "ezinbestekoak" diren neurriak erabaki eta eraginkortasunez aplikatzeko.

Hala, Lanabes – Araban Euskara Lanean egitasmoaren elkarlanean euskara bultzatzeko egiten ari diren lana eredugarritzat jo zuen Gutiérrezrek: "Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia txertatzeko eta handitzeko helburu partekatuekin ari gara denok lanean. Espero dezagun arrakastarik handiena izatea", azaldu zuen. – DNA